

UGARRANDIA KIROL INSTALAZIOETAN KUOTAK DOITZEA GREBAREN ONDORIOZ

1- UGARRANDIA KIROL INSTALAZIOETAKO ABONATUEN HILEKO KUOTA

Uharteko Udalak ez du hileko kuota osoa kobratuko grebak iraun duen bitartean (urriaren 18tik urtarrilaren 10era), nahiz eta astelehenetik ostiralera goizeko ordutegian kirol instalazioak partzialki irekita egon.

Konpentsazioa honela egingo da:

Azaroko eta abenduko hileko kuotaren ordainagiriak ez dira igorri greba dela-eta.

Urtarrilean igorriko den ordainagiriak instalazioa irekita egon den urtarrileko egunak hartuko ditu kontuan, urriko greba-egunak kenduta.

2022ko urriaren 18tik aurrera instalazioan baja eman duten pertsonak urriko ordainagiriaren zati proportzionala itzultzeko eskatu beharko dute Udal Kirol Zerbitzuaren bulegoetan, edo deportes@huarte.es helbidearen bidez.

Urriko ordainagiria itzuli duten abonatuak Udal Kirol Zerbitzuaren bulegoetan ordaindu beharko dute, izan ere, urriko itxiera-egunen konpentsazioa urtarrilean egingo da.

2- LEHENENGO TXANDAKO IGERIKETA IKASTAROAK

Etendako asteak urtarrilaren 31tik aurrera luzatuko dira, eta igeriketa ikastaroen lehenengo txanda apirilaren 21ean amaituko da.

Bigarren igeriketa-txanda aldi motzagoan eskainiko da, eta aipatutako aldiari egokitutako prezioa izango du. Igeriketako bigarren txandan berriz izena emateari buruzko informazioa emango da.

Urrian egindako igeriketa ikastaroei dagokien ordainagiria itzuli duten abonatuak berriro ordaindu beharko dute Udal Kirol Zerbitzuaren bulegoetan.

3- UDALEKO KIROL-ESKOLAK ETA HELDUEN ETA HIRUGARREN ADINEKOEN JARDUERAK (22-23 DENBORALDIA)

Grebaren eragina jasan duten udaleko kirol-eskolek, helduen eta adinekoen jarduerak, eskolak eman ez direlako edo hasieran esleitutakoa ez den beste espazio batean birkokatu direlako, otsailean egingo den bigarren ordainketan dagokion zati proportzionala konpentsatuko da.

Egiten ari ziren jardueran bigarren aldirako (otsailetik maiatzera) baja eskatu duten pertsonak, lehenengo aldiko zati proportzionala itzultzeko eskatu beharko dute Udal Kirol Zerbitzuaren bulegoetan edo deportes@huarte.es helbide elektronikoan.

Urriko ordainagiria itzuli duten abonatuak berriro ordaindu beharko dute Udal Kirol Zerbitzuan bulegoetan, grebako egunen konpentsazioa otsaileko ordainagirian egingo baita.

4- KONTRATATUTAKO BONUAK: FITNESS UGARRANDIA BONUAK, SPA SPORT-IZOTZ BONUAK ETA BULDER BONUAK

Uharteko Udalak Ugarrandia Fitness, Spa Sport-Izotz eta Bulder bonuen zenbatekoa ez kobratzea erabaki du grebak iraun duen bitartean, nahiz eta astelehenetik ostiralera, goizez, Ugarrandiako gimnasioa martxan egon den, Spa Sport Itaroa Uharten irekiera partzialak egin diren eta Izotz Jauregia irekita egon den.

Kompentsazioa honela egingo da:

Azaroko eta abenduko hileko kuotaren ordainagiriak ez dira igorri greba dela-eta.

Urtarrilean igorriko den ordainagiriak instalazioa irekita egon den urtarrileko egunak hartuko ditu kontuan, urriko greba egunak kenduta.

Urriko ordainagiria itzuli duten abonatuak berriro ordaindu beharko dute Udal Kirol Zerbitzuaren bulegoetan, greba egunen konpentsazioa urtarrileko ordainagirian egingo baita.

5- IZOTZ JAUREGIKO BONOAK

Grebak ez duenez zerbitzu horretan eraginik izan, normaltasunez fakturatu da.